

## EUSKAHALDUN BERRIA, ZORIONAK!!!



### 1. Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

Maitasunak eraman ninduen, lehenengo mutilagatik eta orain semeengatik.

### 2. Zerk lagundu zizun bereziki ikasketa prosezuan?

Alde batetik, ikasketa euskaltegian burutzeak. Beste aldetik, inguruak: mutila, mutilaren familia, lagunak, lankideak eta ikastolako giroa.

### 3. Zer irabazi duzu euskara jakinda?

Euskara nire hizkuntza balitz bezala sentizea, maitatzea. Beste herri baten nortasuna eta kultura ezagutzea. Horregatik, gaur egun nik bi "patria" ditut: Argentina eta Euskal Herria.

### 4. Zer aholkatuko zenioke ikasi nahi edo zalantzan dagoen norbaiti?

Burua eta bihotza askatu, beldurra eta aurreiritziak uxatu, euskara besarkatu eta ezagutu. Ezin da maitatu ezagutzen ez duguna. Animatu, ez da han zaila!!!

**Lina Ugarte, Ikastolako ama**



